

MATERIALISMO HISTERIKOA

Ala inor ez



UXUE APAOLAZA LARREA

Asier Ezeizaren argazkia ikusi dut egunkarian. Xaxirena. Argazki batzuek horrela asaltatzen gaituzte. Ahalegin-
du naiz barrutik ateratzen, eta ezin dut. Ze saltsa horri buruz idaztea. Nor etsaituko zait. Baina ezin begiratzeari utzi.

Ezinezkoa da Xaxik pena ematea, pertsona domeazinekin zaila da gupidarik sortzea: izaera batzuek ez dute halakorik merezi, gupida horren aurka borrokan bizi izan dira, minari aurrez aurre begiratuta. Amorrua kutsatzen dit, eta horretan lagun dut. Baina ez dut aldarrikatze heroirik. Ez dut inon heroirik ikusten. Eta argazkiko herriidea eta ni elkarri hozkaka ibiliko ginen duela urte batzuk (eta elkar hil daiteke elkar maitez ere). Baina gatazka ez zen berea bakarrik, gatazka nirea ere bazen, gatazka herri oso batena zen, gutxienez. Zergatik dago bakarrik epailearen aurrean.

Ardura penala indibiduala da. Eta nor lasaitzen du horrek. Norbaitek gainditu du hau? Bada norbait nire adinetik gora memoria anputatu gabe lasai lo egin dezakeenik? Gatazkaren ondorioak bakarka doaz, orainaldiaren zuntz hauskorrak gehiegi ez astintzeko bolumenean, festa irribarretsura ezin lotu. Eta norbaitek uste badu ez zuela inor hil, berak ez zuela zegoen indarkeriari indarkeria eransteko ezer egin ez zelako ETakidea, ez zelako polizia... ez diot sinesten. Benetan iruditzen bazitzaizkigun hain terribleak egiten genituen gauza batzuk, neurtu zer egin zenuen egin ez zitezen. Neurtu erabaki ziztrinen bat hartu zenuen. Benetan, nor da nahikoa errugabe gaur egun lasai bat merezi izateko? Zergatik nik jarrai dezaket alemana banintz bezala, eta Xaxik ez.

Amorrua sentitu dut Xaxiren argazkiari begira. Porrot izugarri baten sentsazioa geratu zait. Zergatik daude bakarrik. Zergatik ukatzen dugu ez iraganeko sufrimendua. Oraingoa. Ze ondorio terribleren gainean ari gara dantzan. Zenbat zauriren. Batzuetan ez dit ospatzen jarraitzeko gogorik ematen. Ez naiz alemana. Nola zen... denok ala inor ez. ●

EZ HANKA EZ BURU

 ADUR LARREA
www.adurlarrea.com


Hezkuntza

Nafarroako haur eskola publikoak doakoak izango direla iragarri du Carlos Gimeno Nafarroako Gobernuako Hezkuntza kontseilariak. Datorren legealdiari begirako asmoa du. Euskara "sustatzen" jarraituko dutela gehitu du, baina D ereduko eskaintza "mantenduta".

Independententzia

Macronek autonomia eskaini dio Korsikari, Frantziako Errepublikaren barruan. Frantziako Konstituzioan Korsikaren izaera berezia jasoko luke artikulua batek. Presidenteak hezkuntzan korsikera bultzatzeko asmoa iragarri du, baina ez hizkuntza ofizial bihurtzeko.

Osasuna

Osasun sistema publikoaren defentsan manifestatzera deitu dute azaroaren 11n. Bilbon, Donostian eta Gasteizen egingo dituzte mobilizazioak osasungintza publikoaren aldeko herri plataformek. Osasungintzaren pribatizazioa salatu dute.